

## 111/24 PRENTSA OHARRA

### 3 HONDARTZETAKO KROSA DELA ETA, GELTOKI ALDAKETAK

**Urriaren 13an, igandean**, 3 Hondartzetako Krosa egingo da eta, hori dela eta, **9:40etik 10:45era** gutxi gorabehera honako aldaketak egingo dira Dbuseko hainbat linearen ibilbide eta geltokietan (ezin izango da Zurriolatik zirkulatu). Hona hemen aldaketak:

**\*Antiguo aldeko lineak (5L, 16L, 18L, 25L, 33L eta 45L): 9:40etik 10:25era** gutxi gorabehera Antiguotik Erdialderaino doazen autobus guztiek ezin izango dute Kontxa Pasealekutik igaro. Satrustegitik, Pio Barojatik, Izoztegitik, Pio XII.etik, Bizkaia Pasealekutik, Gernikako Arbolatik eta Foru Pasealekutik Etxaideraino helduko dira. Ondarretako geldialdia Esklabetan egingo da.

- **5-Benta Berri, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:**

Boulevard eta Gipuzkoa Plaza geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo da. Zubieta-San Martin geltokia zerbitzurik gabe geratuko da eta **Urbietatik 6ra eta 20ra** eramango da, hurrenez hurren. Urbietatik aurrera Antso Jakitunetik, joango dira, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko dute, Pio Barojatik jaitsiko dira Antiguorantz eta beren ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Zubieta Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 31 geltokiak ere kenduko dira.

- **16-Igeldo:**

Bukaerako geldialdia Okendo kalean mantentzen da.

**8:30etik 9:30era eta 10:50etik 11:30era gutxi gorabehera (helmugaren muntaketa eta desmuntaketa direla-eta)**

Antiguan, Funikular eta Satrustegi geltokiak kenduko dira eta **Wieswaden** kalera eramango dira (behin-behineko zutoina Brunet kalearekiko bidegurutzean).

**9:30etik 10:50era (lasterketak irauten duen bitartean)**

Antiguorantz doala, Bengoetxeatik, Idiakezetik, Askatasunaren Hiribidetik joango da, Urbietatik, Antso Jakitunetik, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko du; gero, Pio Barojatik jaitsiko da Matiarantz eta Europa Plazatik, Olarain kaletik, Ondarreta pasealekutik Wieswaden kaletik (behin-behineko zutoina Brunet kalearekiko bidegurutzean) eta Igeldo pasealekutik joango da eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Zubieta-San Martingo, Sanserrekako (bi noranzkoetan), Satrustegiko, Funikularreko, Zubieta Plazako eta Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokiak kenduko dira.

Erdialderantz: **8:30etik 11:30era (helmugaren muntaketa eta desmuntaketa dela-eta)**, Satrustegi eta Funikularretik ezin denez ibili, Iruña kaletik zuzenean ateratzen da Zumalakarregira.

- **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio eta 45-Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

Zubieta-San Martin geltokia zerbitzurik gabe geratuko da eta **Urbietara 20ra** eramango da. Urbietatik aurrera Antso Jakitunetik, joango dira, Pio XII.etik, Izoztegiko bidetik jarraituko dute, Pio Barojatik jaitsiko da Matiarantz eta Europa plazatik beren ohiko ibilbideei helduko diete berriro. Askatasunaren Hiribidea 31 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kenduko dira eta **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango da. Zumalakarregi 10 eta Antiguoko Anbulatorioko geltokiak Matiara eramango dira eta Majisteritzakoa R.M. Azkuera.

- **27-Altza-Intxaurrondo-Antiguo-Gros:**

**Antiguorantz:** Pio Barojatik jaitsiko da eta Mikeleetatik Matia kalera joango da Europa plazaraino eta bere ohiko ibilbideari helduko dio berriro.

Zumalakarregi 8, Antiguoko Anbulatorioa eta Majisteriza geltokiak kenduko dira eta Matiara eta R.M. Azkuera eramango dira.

- **8-Gros-Intxaurrondo eta 29-Hego Intxaurrondo Sur:**

Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdiak **Idiakez kalean** egingo dira. Askatasunaren Hiribideko geldialdiak ere kendu egingo dira eta Idiakez kalera eramango dira. Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.

- **13-Altza:**

Boulevard 3 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak **Idiakez kalera** eramango dira. Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.

- **14-Bidebieta:**

Kurasaletako geltokia **Colón pasealekura** lekualdatuko da.

- **19-Aiete-Bera Bera:**

Gipuzkoa Plaza geltokia kenduko da eta bukaerako geldialdia **Okendo kalean** egingo du. Marianistetako geltokia eta Easo 19koa kenduko dira.

- **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

Boulevardeko geltokia **Gipuzkoa Plazara** eramango da (14 linearen geltokia). Kursaaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da. Marianistetako geltokia zerbitzurik gabe geratuko da. Easo 19 geltokia **Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango da.

- **21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:**

Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta bukaerako geldialdiak **Okendo kalean** egingo dira.

- **37-Rodil-Zorroaga:**

Kurasaletako geldialdia **Colón pasealekuan** egingo da.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

- **47-Atotxa Erreka:**  
**Itsasargiaren Pasealekurako zerbitzua bertan behera** geratuko da 9:45etik 10:30era.  
Atotxaerrekarako zerbitzua ohiko ibilbidea egingo du.

Informazio gehiagorako, deitu 900 840 146 telefonora, edo [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean.

